

# Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak

JOSÉ M. SATRUSTEGI\*

Euskal dialektologia premia handiko ikergaia da euskara batuaren eraginez euskalkien berezitasunak ezabatzen ari diren une honetan. Hori dela eta euskal testu zaharren lekukotasuna beharrezkoa du euskarak, izkribuen altxorra aberastu, iturriak aztertu eta ohiko hizkuntz eredu jatorrak zaintzeko.

Noizbait testu bera euskalki desberdinetan duintasunez emana izan bada herri-mintzairaren fidagarritasunez, izkribuak uste gabeko balioa lortzen du ikerlearentzat eta tokian tokiko hizkeren berezitasunarekin nabarmentzen da pasarte parekatuetan.

Lan honetan aurkezten diren argitara gabeko izkribuak Lesaka eta Luzaideko mintzaira herrikoian idatzitako bi sermoi luze dira. Karrrikako ahoskeratik hurbil dago Bidasoa aldeko testua. Anastasio Echeverri da bere egilea eta Elizondon jaio zen 1832ko apirilaren 16an. Apaiztu eta Lesakako parrokiako benefiziatu izendatua izan zen 1856an, eta hurrengo urtean idatzi zuen betikotasunari dagokion sermoi hau<sup>1</sup>. Bi urteren buruan egin zuen apaiz sarrera Zugarramurdin<sup>2</sup> eta bertako erretor izan zen berrogeita hamar urtez, 1907an hil zen arte.

Bigarren izkribua Nikolas Polit Luzaiden apaiz eta Orregako kalonjeen priore izandakoarena da. Auritzen sortua 1834ko abenduaren 7an, 1858an apaiztu zen eta 1862an izendatu zuten Luzaide edo Valcarlosko arduradun. 1887an herria utzirik, Orreagan bere anaia Frantziskoren hutsunez priore egin zuten, eta bertan hil zen 1906ko ekainaren 3an.

\* Euskaltzaindia.

1. Predikuaren izenburuan ezkerreko bazterrean honela dio:

Pred. 1857 el 8 y 15 Marzo á medias (Lesaca)

id 1858 el 7 de marzo á id (Lesaca)

id 1858 el 21 de id Zug(arramurdi).

2. Parrokiako artxibotik jasotako berriak Javier Sanzberro apaizak bidaliak dira. Anastasio Echeverriren sermoi eta eskuizkribuen bilduma nagusia Zugarramurdin dago.

Hemen transkribatua eta beste zenbait, Nikolas Politen paperekin niri eman zizkidaten Orreagan apaiz lagunek.

Hitzaldi biak neurri handi batean berdinak dira, tokian tokiko hiztegi eta aditz formekin. Lesakakoak garizumako bigarren igandearen aipamena egiten du gaian sartu aurretik, eta Luzaidekoak ez dakar atal hori. Alderantziz, hirugarren puntuaren hasieran bere atala eransten dio Polit jaunak eta ez dator Echeverriren. Besteetan, bien arteko lotura nabarmena da lerroz lerro ageri den moduan. Nork nori hartua? Luzaideko apaizak berekin zituen Echeverriren eskuizkribuak, haren bilduman agertu baitira. Adinaz bi urteren aldea besterik ez izanagatik, Polit seminarioan zegoen apaiztu gabe Echeverrik bere sermoia egin zuelarik Lesakan. Aurizkoa baliatzen da beraz Elizondokoaren paperez. Sermoi hau ez da, bestalde, bien arteko testu parekatu bakarra; Zugarramurdiko parrokiaren Echeverrik egindako lehen aurkezpena, lau urte beranduago errepikatu zuen Luzaiden Polit bikario berriak<sup>3</sup>. Elizbarrutiko gotzai-gutun bat ere itzuli zuen euskarara Luzaideko apaizak<sup>4</sup>, eta argitaragabeko bere euskal izkribuen bilduma aipagarria da benetan. Euskaltzale zintzo, apaiz jator eta idazle trebea sumatzen da akats gabeko bere iskione edo kaligrafia txukun eta ederrean. Enrike Zubiri «Manezaundi» gogoko dutenak ez dira aspertuko bere herriko apaizaren idazkera garbi eta ongi zainduarekin. «Bordel» bertsulariarekin batera hiru dira, horrela, euskal letraren arloan Luzaideko mintzaira maisuki landu duten idazleak.

## EUSKARA

Lan honen helburua ez da euskalki bien arteko berezitasun nabarmenak aztertzea, hizkuntzalari eta filologia munduan dabiltzanei aztergaiak eskaintzea baizik.

Lehen begiratuan agertzen dira bien arteko zenbait desberdintasun. Lesakako izkribuan, adibidez, hitzaren amaierako *-a* artikulua mantentzen da erakuslearekin batera: *eguna eq, arriya hoq*. Eta joera bera du aditzarekin nahiz hitz-laguntzailearekin: *anciya dagona ura, espantagarriya au*. Luzaideko papereetan ezabatu egiten da artikulua. Hona adibide argia:

*«Auche da, araco pensamentu, munduco yende mortalaz añ lastimagarriqui anciya dagona ura, gizonen memoriyatiq veñere apartatu viar esluquiena ura: araco pensamentu miragarriya ura icusi dattezquien gauza guziyeq viño gorago, gu alchatzen gattubena ura, munduco qriaturen desverdiña ura gure ganiq arrancatzen dubena ura», e.a. (A. 34-38)*

Luzaideko testu parekatuak beste itxura hau du:

*«Au da, munduco yende mortalez ain lastimagarriqui ahantziiq doon pensamendu ura, guizonen memoriatiq beinere apartatu behar ezluquena: pensamendu miragarri ura, icus daitezquen gauza guziaq bano gorago gu alchatzen guitiema, munduco creaturen amodio soberaquina gure ganiq quentzen diena» (B. 34-38)*

3. Izkribu biak argitaraturik daude. Ikus Echeverrrena, «Textos dialectales de documentos religiosos vascos». 1 Lesaka. 2 Zugarramurdi. FLV 48, 1986, p. 301. Nikolas Politen kopiarentzat ikus, «Textos dialectales de documentos religiosos vascos». 3 Luzaide-Valcarlos. FLV 49, 1987, pp. 97-115.

Beste sermoi batzuek Donostian argitaratu genituen. Ikus, «Luzaideko euskara Nicolas Polit zena-ren izkribuetan». ASJU XX-3, 1986, 787. or.

4. «Iruñeko elizbarrutiko izkribu baten itzulpena Luzaideko mintzairan» SENEZ 15, 1994, 73-93. or.

Bidasoa aldeko ereduan bustidura azpimarratzen da: *veñere, dattezquien, viño, desverdiña*. Luzaidekoan ez dago bustidurarik: *beinere, ditezquen, bano, soberaquina*.

Echeverrik erdarakada gehiago sartzen du eta, orohar, idazkera arrunta goa da berea Luzaidekoa baino. *Vigueta* (gibela), *vague* (gabe) edo *vaguia* (gabia) bezalako hitzen barne aldaketak erabiltzen ditu, eta *verila* (berehala) moduko laburdurak. Hiztegi oso desberdina da biena eta aditz formak tokian tokikoak.

Arazoa da, Echeverrik zenbateraino kutsatua duen jakitea Elizondo sorreriko hizkerarekin bere izkribua, hala nola Aurizkoarekin Politek Luzaidekoa. Honena fidagarria da dudarik gabe, eta Bidasoa aldeko mintzaira aztertu dutenek esango dute bestea.

Maileguetako *t/d* aldagaietan kontrako joera nabarmena azaltzen da. Bokal artean Echeverrik *d* idazten du beti, eta Polit jaunak *t*: *estadu/estatu* (61); *eternidadia/eternitatia* (71); *conformidadian/conformitatian* (136); *vanidadietaiq/vanitatetaiq* (158), *fragilidadel/fragilitate* (319). Behin edo beste *n* konsonantearen atzetik ere sumatzen da jokabide hori, hala nola, *ondasun/ontasun* (52), *emendiq/ementiq* (157), *verandul/veranta* (435) eta *nondiq/nuntiq* (419).

Elizgaietako maileguetan, hala ere, erabat bestelako bidea daramate biek. Han *d* egiten zuen Echeverrik, *t* idazten du hemen; eta Politek *d*, aurreko *t* haren orde: *pensamentuba/pensamendu ura* (51), *santubaq/saindiaq* (144), *sacramentubeterat/sacramendietara* (183), *mandamentuben cumplimentuban/mandamendien complimendian* (191), *movimentuban/movimendian* (176), e.a.

Salbuespenez, *tormentu* (113) hitza dute biek berdin idazten.

Beste desberdintasun askoren artean, *pecatari/becatari* (416), eta *gostosuetaiq/costosuetaiq* (133) bezalako ñabardurak aztertzeko altxor aberatsa eskaintzen die euskal filologiako ikerleei hainbat puntutan Pirine alde bietako euskararen konparaketak Nafarroan.

Hitz eta esaera errepikatuak parentesi artean dakartza Luzaideko izkribuak eta horrela traskribatu dira kurtsibaz. Testuen konparaketa errazteko bi zutabetan ipini dira eta zenbaki berdina eman zaie bien lerroei, A letraz izendatuko delarik Lesakako izkribua, eta B-rekin Luzaidekoa.

ETERNIDAD D<sup>a</sup>. 2<sup>a</sup>. QUADRAG.  
*Dominum tuum adorabis et illi soli servies*  
 (Mat. c. 4 v. 10)

Eramanen zubela espiritubaq Jesus desiortat Demoniyuaq tenta zezan dio gaur S. Mateoq; lentavizicoriq\* erranzion demoniyuaq Jesusi, baldin Jangoicuaaren Semia baiz, aguinzaq, arriya hoq\* viyur dattezen ogui: vigarrencoriq seguitucion vere borondatez Jesuseq tentazalliari, eta yarri ziren viyeq temploco galdurrabaren gañian, erran cion Diabrubaq Jesusi, baldin Jangoicuaaren Semia baiz, botazaq emendiq ere buruba, bada escribittuba ciagoq, Jangoicuaq aguinyu ciola vere Anguerubey<sup>10</sup> i escubetan guelditzeco miñiq artu eztezaquen: azquenecoriq guiatusuben Diabrubaq Jesus mendi alto baterat manifestatu ciotion\* munduco erreynu guciyeq eta equin gloriya, eta erran cion, orcheq guciyeq emanenttiat baldin lurrian belaunicaturiq adoratzen vanauq.

Orduban errancion Jesuseq, guaye Satanas, bada escribittuba ciagoq, adoratuco duc ere Jangoico Jauna, *Dominum Deum tuum ...* Permitittucion J. Cristoq Demoniyuari tentatzezan, aditzerat emattiatigatiq iñorere etzagola tentaciyotiq libre, eta guciyeq garela tentatubaq dion vezala Santiago Apostolubaq *unusquisque tentatur á concupiscentia sua* (C. C.1 v. 14) eta demoniyuari<sup>20</sup> eman cion errespuestarequin digu eracusten, nola biar ttugun tentaciyuaq garattu, mattaturiq Jangoicua gauza guciyen gañian, ari bacarriq servitzen diogula, au baita tentaciyoaq garaitzeco mediyoric eficazena, eta mattatzen dugu Jangoicua gauza guciyeq viño gueyago? Hay! icusten dena da Mundubaq Demoniyuaq eta Araguiaq presentatzen ttiguzten\* tentaciyuaq direla consentitzen, eta Jangoicuaenganaco amoriyua eta serviciyua direla despreciatzen eta desestimaten ¿eta cergatiq? Ceren ez tiren iduquitzen pensamentuban eternidadeco eguna eq, edo betico dichosuaq, edo betico desdichatubaq<sup>30</sup>.

A. LESAKA

¿Norq emanenttio gaur nere ezpañey itzaq, nere entendmentubari pensamentubaq, nere espiritubari fervoria, nere Ministerioari corresponditzen zayon bezalaco zelo bat, zubey gaur Christandadeco egui añ espantagarriya au proponitzeco? Auche da,

B. LUZAIDE

¿Norq emanen dazco egun ene ezpainer itzaq, ene adimendiari pensamendiaq, ene izpiritiari fervoria, ene ministerioari corresponditzen zacon bezalaco celo bat, cier proposatzeco eternitatiaren pensamendu icaragarria? Au da, munduco yende morta-

A 2. *lentavizicoriq* Euskal hitzetan -nd- egin ohi du: *ondasun, nondiq, emendiq, verandu* e.a. Maileguetan alderantziz, -nt-: *cumplimentu, salvamentu*, e.a. Beraz, *lendavizicoriq* izan zitekeen.

A 3. *arriya hoq*. Horrela gordetzen da artikulua erakusle aurrean.

A 13. *ciotion*, zizkion.

A 26. *ttiguzten*, dizkiguten.

araco pensamentu, munduco yende mortalaz añ lastimagarriqui anciya dagona ura, guizonen memoriyatiq veñere apartatu viar esluquiena ura: araco pensamentu miragarriya ura icusi dattezquien gauza guciyeq viño gorago, gu alchatzen gattubena ura, munduco qriaturen desverdiña ura gure ganiq arrancatzen dubena ura, viciyuaq aborreciyerazten eta virtutien<sup>40</sup> egerciciyorat poderosoqui mugierazten gattubena ura: auche da araco pensamentu icaragarriya ura, guizon deniq valientiena icaratzen, yaquinsun deniq presumittuben\* desengañatzen, soberbo deniq altuvueña humillatzen, deshonestuen verotasunaq itzaltzen, abaruba, vere ondasun injustubetatiq iraunzten ttubena ura: aucha\* (sic) da araco pensamentu andiya ura, ceñen vistan baitirudite ttiquiyaq martiren tormentubaq, Anacoretan penitencia espantagarriyaq, eta orañiq munduco mendiyaq ere doblatzen, eta chiquitzen baitire: auche da azquenian pensamenturiq edo ideariq eztuben pensamentuba ura, ceñen presenciyen icusten baitugu deusezerat<sup>50</sup> viyurzen empleguriq ilustrienaq, edertasun deniq perfectubenaq ondasun deniq andiyenaq, eta desaguerzen aziaq\* daraman polbua vezala erainubaq\* eta Ymperiyuaq: auche araco David penitencia icaratzen zuben, eta vere biciyaren emienda oso baterat determinatzen zuten betico urtieq, erratten zubenian *Cogitavi dies antiquos, eta annos aeternos in mente habui* (Ps. 76 v. 6) Yarnitzen consideratzen, beti iraun viar duben egunetan, betico urtietan eta equin pensamentu espantosuaq quendu cidan nere loa, bustierazi cit-

*lez ain lastimagarriqui ahatziq doon pensamendu ura, guizonen memoria-tiq beinere apartatu behar ezluqueña: pensamendu miragarri ura, icus ditezquen gauza guciaq bano gorago gu alchatzen guitiena, munduco creaturen amodio soberaquina gure ganiq quentzen diena, vicio eta becatiaq aborrecihazten eta vertuteen practicatzera<sup>40</sup> iguihazten guitiena: au da pensamendu icaragarri ura, guizon deniq curayosena icaratzen, yaquinsun deniq presumitiena desengañatzen, sobervio deniq urgulutsiena humiliatzen, deshonesten verotasunaq eta pasioniaq itzaltzen, avarua, vere untasun inyustuetaiq erauntzten diena: au da pensamendu aundi ura, ceinaren vistan iduri baitute ttipiaq martirren tormentiaq eta Saindien penitencia icigarriyaq: au da pensamenduiq edo ideyayiq eztien pensamendu ura, ceinaren presencian icusten baitugu ezyeuserat viurtzen emplegüiq<sup>50</sup> ilustrienaq, edertasun deniq perfectenaq, untasun deniq aundienaq, eta desaguerzen, aiciaq daraman errautsa bezala, erresumaq eta imperioaq: au da, azquenian, David penitenta icaratzen cien, eta vere vicitzaren erreforma oso baterat determinatzen cien pensamendu ura, erraiten cienian: Cogitavi dies antiquos, et annos aeternos in mente habui (Ps. 76). Yarni nintzan\* consideratzen beti iraun behar duten egunetan, betico urteetan, eta pensamendu icigarri uneq quendu zahan ene loa, eta bustiaci zazquidan ene ohatzia eta ene yanaria ene nigarrequin, ezarriq ene veguien aitzinian ene crima guciaq,<sup>60</sup> Yaincoaren colera yustua, aren presenciarat aguertzeco*

A 43. *deniq presumittubena izan behar dute.*

A 45. *auche.*

A 53. *aziaq, haizeak.*

A 53. *erreinubaq.*

B 55. *Nintzen, Luzaideko mintzairan.*

tidan nere guatzia, eta nere yanaria, nere nigar zaminequin, paraturiq nere veguiyen aincinian nere maldade guciyeq,<sup>60</sup> Omnipotentiaren colera justuba, aren presenciyerat aguerzeco arquitzen naizen estadu tristia, eta nere esperuan dagon betico castigua, baldin ezpada urricaltzen nere doloriaz, nere suspiruaz eta nere eguiyazco penitenciyaz: Peniteciya auche da bada niq culporen naufragiotiq ittotzeticq libratzeco artu viar dudana ola infernuco Ytsaso ondoriq vaguiartan itto esnadien\*. Niq determinatzen dut nere vici guciyan peniteciya eguitia, ni besarcetzen naiz peniteciya onequin eta diot *Ecce nunc caepi, haec mutatio dexteræ excelsi* (Ps. 76) Yaquin veza mundu guciyaq nere vicitzaren emienda, da Jaunaren misericordia poderosoaren<sup>70</sup>, eta eternidadian pensamentu provechosuaren ondoria ¡Oh eternidadia, eta ceñ resolucione eta proposito añ Santubaq ttuzun causatzen eta engendratzen! Oh eternidadia, erratten zuben S. Agustineq zutan pensa eta emiendatzen eztena, edo ucatu du fediaz edo galdu du viyotza. *Oh Aeternitas! qui te cogitat nec paenitet, aut certe fidem non habet au(t) si habet cor non habet (in soliloq)*

Nondiq vada A.M. eldu da pensamentu provechosua oneq, ez causatzia zuben viyotzetan Daviden eta verze eternidadian serioqui pensatu duten battan causatu cituzten ondore osasungarriya hoq? Ay eta niq certaco dut galdetzen, baldin guciyeq icusten vadugu.<sup>80</sup> Ceren ezten pensatzen eternidadian: bay Jaunaq: *et non est qui recogitet in corde*: ¿Cergatiq ari da orduco guizon ura amberce empe-

*aurquitzen nizan estatu tristia, eta ene beha doon punimendia, baldin ezpada urricaltzen ene doloriaz, ene pleñiez eta ene eguiazco penitenciaz. Penitencia au da bada niq artu behar dutan erremedio eta defensa libratzeco becatutiq eta Ynfernian ez erortzeco. Niq determinatzen dut ene vici gucian penitencia eguitia, ni besarcetzen niz penitencia unequin eta diot: Ecce nunc coepi haec mutatio dexteræ Excelsi (Ps. 76). Yaquin veza mundu guciaq ene vicitzaren erreforma da Yaunaren misericordia boteretsiaren<sup>70</sup> eta eternitateco pensamendu valiosaren ondoria. ¡O eternitatie, eta cein resolucione eta proposito ain saindiaq causatzen tuzun! ¡Oh eternitatie!, erraiten cien S. Agustineq, zutan pensa eta vicitzaz cambiatzen eztena, edo ucatu du fedia edo galdu du viotza. ¡Oh aeternitas! qui te cogitat neq paenitet, aut certé fidem non habet, aut si habet cor non habet.*

*¿Nuntiq veraz eldu da, E.A.M., pensamendu valios uneq ez causatzia cien viotzetan Daviden eta bertze eternitatiean serioqui pensatu dutenen baitan causatu cituzten ondore osasungarri hoq? ¿Bana certaco galdeguiten dut niq, baldin gucieq icusten badugu.<sup>80</sup> Ceren ezten pensatzen eternitatiean: et non est qui recogitet in corde ¿Cergatiq ari da guizon ura aimbertzee empeñoiquin vere*

B 58. ofea, Luzaiden.

A 66. esnadien, eta alderantziz zaminequin (A 59). Dirudienez, arazoak ditu Elizondoko semeak s/z letrekin.

ñorequin vere ondasunaq verretzen, egun añ laburreteco, eta eztu pausuriq ematten vere dicharaco vetico urtietan? Ya erran dut ceren ez tuben eternidadian pensatzen, *et non est qui etc.* ¿Cergatiq araco emacumiaq ttu emplegatzen ordu osuaq usteldu viar duben eta dembora guttiyaren varrenian zizariyen yanariya izan viar duben vere gorputzaren apainzen eta ezta ocupatzen pusco bat siquiera veñere ill biar ez tuben vere animaren adornatzen?<sup>90</sup> Ay! Niq ez tut dudatzen berriz ere errattia, ceren ez tuben pensatzen etorri dadian *et non est qui etc.* Vada cer, eternidadiaq, bay eternidade espantosuaq, ez tu mereci guq artan pensatzia? Hay, bayetz christau mattiaq! hay bayetz! Viño munduco yende mortalaq ttuzte inguratzen Ytsasoa eta lurra, diré izerditzzen, diré negatzen, dabilza errestaca, munduco convenienciyaq eta ondasunaq eguitiatiq, eta ez tiré muguitzen eta ez pausuriq dute ematten, betico dicha eta betico ondasunaq seguratzeco, ceren ez tuten pensatzen *aeternidadian, et non est etc...*<sup>100</sup>

Atozte bada mortalaq zuben eternidadiaaren itcherat pensamentubarequin, artan eguiyazqui sartu viño len: atozte, eta saya zattezte yaquitterat, viño ez cer den eternidadia, ceren den ezin explica dattequiena viño aren propiedadiaq diré: 1a. Eternidadia da ezin escapa dattequiena: 2a. Eternidadia da gauza gordia: 3a. eta eternidadia da ezin erremediya dattequiena. Espero dut Jangoicuaren battan iru pensamentu sencillo viño provechosuquin zubeq abandonatuco duzubela munduco criaturen ganaco afecto gaisto guciya, eta paratuco duzubela zuben criadorian: espero dut eguiñen duzubela nigar zuben becatubetaz, eta eguiñen ttuzubela penitenciyaren frutu dignuaq<sup>110</sup>.

*untasunaq emendatzen egun ain laburretaco: eta ez tu pausuriq emaiten vere urostatunaren betico urteetan? Ya erran dut: ceren ez tien eternitatian pensatzen: et non est qui recogitet in corde ¿Cerengatiq emazte areq empleatzen tu oren osuaq usteldu behar dien eta dembora guttiin barnian arren yanaria izan behar dien vere gorputzaren apaintzen, eta ezta ocupatzen apur bat bedere beinere il behar ez tien vere arimaren adornatzen?<sup>90</sup> ¡Ay! niq ez tut dudatzen berriz ere erraitia, ceren ez tien pensatzen eternitatian: et non est qui recogitet in corde ¿Cerengatiq presuna ura emaiten da deshonestqueriari, bertze ura edanari, bertzia ohoinguari, fraude eta inyusticiari; itz batez, cerengatiq becatari guciyaq osticatzen dute Yaincoaren legue saindia, satisfatziatiq mementu batez veren pasioniaq, eta ez tira ensehatzen practicatzer a seculacotz uros eguin behar guituzten obra unaq? Ceren ez tuten eternitatian pensatzen: et non est qui recogitet in corde. ¿Bana cér? Eternitatiaq, eternitate icigarriaq, ¿ez tu merechi guq artan pensatzia? Ezta dudaiq bayetz: bana munduco yende mortaleq inguratzen tuzte itsasua eta lurra, icerditzen dira, aquitzen dira, dabilza errestan munduco convenienciyaq eta untasunaq eguitiatiq; eta ez tira iguitzen ez etare pausuriq emaiten betico untasunaq eta seculaco urostatuna segurtatzeco, ceren ez tuten pensatzen eternitatian: et non est qui recogitet in corde<sup>100</sup>.*

*Zaurte bada mortalaq cien eternitatiaren echerat, pensamendiaiquin artan eguiaz sartu bano lehenago: zaurte eta enseha cizte yaquitera, bana ez cer den eternitatia, ceren den ecin explica daitequena, baicican aren iru propietate edo circunstancia principalaq baitira: 1. Eternitatia da ecin escapada daitequena: 2. Eternitatia*

¡Oh Jangoico eternua idequizitzu\* gure animaco beguiyac araco finiq eztuben demboraren atieq, non gure betico animaq gozatuco baitu acabilliq vagueco dicha bat, edo esperimentatuco betico tormentu bat: idequitzio zu ere gure sentiduey zure Ama Santisimaren vittartacotasunaz, guq ezauturiq gure arima dela eterna, eternua gure destinua, eternua zarela zu, desprecia dezagun munduco demborasco gauza guciya, edo eguin dezagun usariyua munduco gauzaz, naiz bai, eta naiz ezpailire vezala, onequin erditsi dezagun dichosuaq vetico izattia: auche da Jauna guq zuri escatzen dizugun guciya zure veñere manchariq izandu etzuben Amaren medioz, ceñen amparuan paraturiq nere confianza guciyaq\* nuaye asiya ematterat nere sermonari Ave Maria<sup>120</sup>.

1

Eternidadiaq eztu escapuriq: Bay Cristau mattiaq zubeq daquizube, zubeq eta ni izandu guñela concebittubaq yayotzeco, yayo guñela vicitzeco, vizi garela iltzeco, eta illen garela yuzcatubaq izatteco, eta izanen garela yuzcatubaq betico premiya, edo castigua, guziz Poderosuaaren escutiq errecibitzeco, gure obra onen edo gastuaren conformedaderat: gu lurraren gañian vici garen vizquivittartian oroipenaren vaguetasuna da gure eta gu inguratzen gattuzten gauza guciyen marca: guciya da mudanzaq eta contingenciaq<sup>130</sup>.

A 111. *idequizquitzu.*

A 119. *guciyquin*

*da gauza gordia; eta 3. Eternitatia da ecin erremedia daitequena. Vorchatia niz cien atencioniaz abusatzera, costumatzen dutana bano gueyago luzatuz; bana condutzen dut cien pacienciaiquin, eternitatiaren iru circunstancia oon esplicatzeco.<sup>110</sup>*

*¡Oh Yainco eternala! Ydequizquitzu gure arimaco veguier (finiq) acabantzaiq eztien demboraren borta, nun gure arima eternalaq gozatuco baitu seculaco urostatun bat, edo esperimentatuco betico tormentu bat: idequizquitzu ere gure sendimendier amorocatican eta guq ezautuz gure arima dela eternala, eternala gure destino edo suertia, eta eternala cirrela zú, desprecia ditzagun munduco demborazco gauza guciaq, edo eguin dezagun etaz usaya indiferent bat heq ezipalira bezala, guisa untan erdies dezagun beticotz urosaq izaitia. Au da, Yauna, guq zuri escatzen dauzugun gracia, secula manchaiq izan etzien zure Ama Sandiaren intercesionez, ceina salutatzen baitugu gucieq Gabriel Aingueruaren itzequin .. Agur Maria<sup>120</sup>.*

1

*Eternitatiaq eztu escapuiq. Cieg daquicie cieg eta ni concebitiaq izan guñela sortzeco, sortu guñela vicitzeco, vici guñela iltzeco, ilen guñela yuyatiaq izaiteco, eta izanen guñela yuyatiaq betico premia edo punimendia Yaincoaren escutiq errecibitzeco gure obra unen edo gaistoan conformitate-ra. Gu lurraren gainian vici guñen vittartian, inconstancia da gure eta gu inguratzen gittuzten gauza guciyen marca gucia da mudanzaq eta dudaq.<sup>130</sup> Yzan guitezque aberatsaq Evangelioa avaro ura bezala, bana guisa verian yauts +uitezque ura ba-*



Yzan gattezque aberetsaq Evan-  
gelioco avarua ura vezala, viño baye-  
tere yautsi gattezque ura vezala Yn-  
fernurat banquetietatiq, eta gala cos-  
tosuetiq; Yzan gattezque pobriaq La-  
zaro vezala, vino bayetere Jangoicua-  
ren graciaq lagunduriq, segui dioz-  
quegu\* paciencian trabajubetan, vi-  
yotzeco ontasun eta zuzentasunian,  
eta Jangoicuaren borondate Santua-  
ren conformidadian eta izan erama-  
naq Paradisorat: Yzan gattezque ya-  
quinsunaq Salomon vezala, eta izan  
gattezque tonto batzubeq Roboan  
vezala: igan gattezque tronorat eta  
Erregue poderoso batzubeq, izan  
Alejandro, David, Asuero, Navuco-  
donosor eta berce aunitz vezala, viño  
bayetere etorri gattezque tronotiq<sup>140</sup>  
suerte deniq miserablienerat An-  
droncio eta Vitelio vezala: Allegattez-  
que orañiq guizonen desprecia eta  
Puebluaren furiya eta crudeldiaren  
gaya izatterat: allegattezque zartzerat:  
vayetere illgattezque gaur vertan:  
allegattezque Santubaq izatterat, ba-  
yetera falta dezaqueguque onaren  
edo onguiyaren iraupenian, eta aca-  
batu gure viciya becatubaren pisu  
senduwarequin enredatubaq: viño ve-  
ticuaq izattia ezin utzi dezaquegu:  
eguizazube nai duzuben guciya vizi  
zarateño, erratten zuben S. Ambro-  
sioq, viño entendizazube zuben espe-  
ruan dagola erremedyoriq vague  
onaren edo gaitzaren eternidade bat.  
*In hanc vel illam aeternitatem cadam  
necesse est* (S. Amb. sup. Ps. 118)<sup>150</sup>.

Nola gure eriotzia baitago gure  
eternidadiarequin oso osoqui irachiya,  
eta nola guciyeq ill viar tugu\*, onen-  
gatiq guciyeq erremedyoriq vague  
viar dugu eternidadiaren itchean sar-  
tu: Bay A.M. zubeq eta niq, dembora  
gutiyaren barrenian viar dugu argui-

zala Ynfernurat banquete eta vanitate  
gostosuetaiq: izan guitezque pobriaq  
Lazaro bezala, bana guisa verian  
Yaincoaren graciaq lagunduiq imita  
dezaquegu paciencian trabailutan,  
viotzeco untasun eta zucentasunian,  
eta Yaincoaren vorondate saindiaren  
conformatian, eta izan eremanaq  
Parabizurat. Yzan guitezque yaquin-  
sunaq Salomon bezala; eta izan gui-  
tezque ignorantaq Roboan Salomonen  
semia bezala. Ygan guitezque tronurat  
eta izan erregue andi batzu, David  
eta bertze anitz bezala; bana guisa ve-  
rian eror guitezque tronotiq<sup>140</sup> suerte  
deniq miserableenerat Manases beza-  
la, eta el guitezque oraino guizonen  
desprecia eta yendien furia eta crude-  
litiaren gaya izaitera. El guitezque  
zahartzera bay etare il guitezque gaur  
verian: izan guitezque saindiaq, bay  
etare falta dezaquegu unaren edo on-  
guiaren iraupenian, eta finitu gure vi-  
cia becatuco estatian nahasiaq. Bana  
beticuaq izaitia ecin utz dezaquegu.  
Eguin zacie nahi ducien gucia vici  
cizteno, erraiten cien S. Ambrosioq,  
bana comprendi zacie cien beha doola  
erremedioiq gabe unaren edo gaitza-  
ren eternitate bat. In hanc vel illam  
aeternitatem cadam necesse est<sup>150</sup>.

Nola gure eriotzia baitoo gure  
eternitaiquin oso osoqui yuntatia  
eta nola gucieq il behar baitugu,  
orregatiq gucieq erremedioiq gabe  
behar dugu eternitaiaren echian sar-  
tu. Bay, E.A.M.\*: cieq eta niq, dem-  
bora laburraren barnian behar dugu

A 134. diezaiokegu.

A 152. dugun.

B 153. E.A.M., ene aditzaile maiteak.

ttu edo Jangoicurequin Zeruban edo Luciferrequin Ynfernuban; egun gutiren barrenian, oran lurraren gañian vici garen guciyaq, desaguertuco gara emendiq eta pasatuco gara viño norat? Hay nere Jangoicua, gala eta vanidadietatiq erauntziyaq, ondasunetatiq villussiyaq, empleguetatiq apartatubaq, aidietatiq separatubaq, guere obra onaq edo gaistoaq verce adisquide eta lagunzalleriq vague,<sup>160</sup> ubillyuco\* gara gure eternidadiaren aterat, bay gure eternidadiaren, araco eternidade, guq gure humildadiarequin, gure pacienciareq(ui)n, gure garvitasunarequin, gure caridadiareq(ui)n, gure mansotasunareq(ui)n, gu(re) penitenciyareq(ui)n, gure oraciyuareq(ui)n Salvamentu santubeq maiz eta frutubarequin errecibittu izandubarequin, eta gure estaduco obligaciyeuen cumplimentu puntualarequin irabci ganuben arterat, edo araco eternidade, guq gure soberviarequin, gure destemplanzarequin, gure lujuriyequin, gure viyotzeco abariciyarequin, eta Christavaren eta gure estaduco obligaciyeuen abandonuarequin merecittu ganuben arterat<sup>170</sup>.

Yuanen da guizona dio Espiritu Santubaq erremeriyoriq vague, vere virtutien medioz merecittu zuben Zeruco eternidaderat edo vere pecatubarequin irabci zuben infernuco eternidaderat: *Ibit homo in domum aeternitatis suae*: ea bada munduco yaquinsunaq, villa ezin escapa dattequien destina onetatiq libratzeco vidiq: ea, Erreguiq, presta ejerzitubaq, disponittu escuadraq, para movimentuban lurra guciya, zeben burubaq apurua onetan ez icustiagatiq: viño iñorenzat erremeriyoriq, ezta iñorenzat escapuriq; precisua da vi eternidadia otatiq vatian sarzia, edo betico gozatzeco,

*aurquitu edo Yaincoarequin Cerian edo Luciferrequin Ynfernian*: egun gutiin barnian, oray lurraren gainian vici guiren guciyaq, desaguertuco guira ementiq eta pasatuco guira, bana ;norat? ;Ay! gala eta vanitatetatiq erauntziyaq, untasunetatiq buluciyaq, emplegüetatiq (gabetiyaq) apartatubaq, aidetatiq separatubaq, gure obra unaq edo gaisstuaq beciq bertze adissquide eta laguntzaleiq gabe,<sup>160</sup> urbilduco guira gure eternitadiaren bortara; guq gure humilitate, paciencia, garbitasuna, caritate, penitencia, otoitz eta gure estatuco obligacioneen complimendu puntualaiquin eta Sacramendu Saindiq maiz eta fructuiquin errecibituz irahaci guinien eternitate artara;edo guq gure sobervia, ordiqueria, gula, lujuria, deshonestqueria, viotzeco avaricia, ayercunde eta guiristinoen eta gure estatuco obligacioneen abandonaiquin merechitu guinien eternitate artara<sup>170</sup>.

*Yuanen da guizona, dio Yspiritu Saindiq, erremeriyoriq gabe, vere virtuteen medioz merechitu cien Ceruco eternitatera, edo vere becatiequin irahaci cien Ynfernucos eternitatera*. Ibit homo in domum aeternitatis suae. *Vilazquitzie veraz munduco sabantaq escapa eztaitequen destino untaiq libratzeco vidiq*: erosquitzie, aberatsaq golpe orren evitatzeco erremeriyoriq: prestasquitzie, erreguiq, cien tropa eta armadaq, ezarracie movimendian lur gucia, cien buriaq lance untan ez icustiagatiq: bana ezta erremeriyoriq, (nehorenzat ezta escapuiq); *necesario da vi eternitate otatiq batian sartzia, edo beticotz gozatzeco, edo beticotz erretzen egoiteco*: In hanc vel illam aeternitatem cadam necesse est<sup>180</sup>.

A 161. *urbilluco*, hurbilduko.

edo betico abrasatzen egotteco, *in hanc vel illam ...*<sup>180</sup>

Zubeq modestiya eta garbitasunarequin vizi zaraten doncellaq, munduco peligruetatiq iguesi eguiñiq, honestoqui veztitturiq, zebeburatsoaq obeditturiq, itcheco lana eta cuidadueterat aplicaturiq, Sacramentubeterat maiz urbillyuriq: *ne verearis usque ad mortem justificavi* etzatteztela gueldittu, eta ez itzuli viguela, asi duzuben vidia orreteteti\*: *segi iraupenarequin eriotzeraño, zuben vicitza ona eta sencilluba orretan, baldin nai baduzube betico premiaren palma erditsi: quoniam merces Dei manet in aeternum.*

Zubeq emacume ezcondubaq, zebe senarraq obeditturiq, itcheco ocupaciyueterat aplicaturiq, veztidura eta arropage excesibuaq abandonaturiq,<sup>190</sup> zebe humiey ejemplu ona ematten, eq Jangoicuaren beldurtasunian, eta aren Mandamentuben cumplimentuban azitzen ttuzubenaq: *non impediari orare semper:* etzatteztela izan zuben itcheco continuco lanaq eta nequiaq traba bat, zuben viyotza cerurat alchatzeco, ceruco bendiciyuaq, zuben arimen gañerat yausierazteco bendiciyuaquin izan zattezten zuben humientzat, familia bateco Ama eguiyazco batzubeq: zuben senarrenzat, emacume ezcondu perfecta batzubeq, eta zuben mercimentubaq betico premiyuarequin, coronatuco baittu, miachuriq mercei eztuzuben Christau batzubeq zuben Jangoicuarenzat *quoniam merces...*<sup>200</sup>

Emacume alargunaq, zuben estadu veneragarriya orretan, garbiqui vizi zaretenaq, osoqui desengañatubaq, munduco gauza guciyaq direla pasatzen itzal bat vezala, eta direla ondazten sepulturán, non viyurtzen vaitiré

*Cieq, modestia eta garbitasunarequin vici cizten doncellaq, munduco lanyerretaiq ihes eguiniq, honesqui veztittuiq, cien aita-amaq obedittuiq, echecho lanetara aplicatuiq, Sacramentietara ardura urbilduiq: Ne verearis usque ad mortem justificari: Etziztela guelditu, ez etare guibelerat itzuli abiatu ducien vide ortaiq: segui zacie iraupenarequin eriotzerano cien vicitza un eta simple ortan, baldin nahi baducie betico premioaren corona erreccibitu: Quoniam merces Dei manet in aeternum.*

*Emazte ezcondiaq, cien senarraq obedittuiq, echecho ocupacionetara aplicatuiq, indecencia eta lujo soberaquinazco veztimenta eta arropaq abandonatuiq,<sup>190</sup> cien aurrer exemplu una emaiten, heq Yaincoaren beldurtasunian, eta aren manamendien complimendian educatzen tucienaq: Non impediari orare semper. Eztela izan cien echecho continuoco lanaq eta nequiaq traba bat, cien viotza Cerurat alchatzeco, yaus diten cien arimen gainera Ceruco benediccioniaq, orrequin izan cizten cien aurrentzat familiaco ama eguiazco batzu: cien senarrenzat emazte ezcondu perfect batzu, eta erreprentoneiq merechi eztucien guiristino batzu cien merechimendiaq betico premioaquin coronatuco tien cien Yaincoarentzat: Quoniam merces Dei manet in aeternum<sup>200</sup>.*

*Emazte alargunaq, cien estadu veneragarri ortan garbiqui vici ciztenaq, osoqui desenganatuiq munduco gauza guciyaq pasatzen direla itzal bat bezala, eta erortzen eta estaltzen direla tumban, nun auts viurtzen baitira*

A 186. bide horretatik.

auts, ondasun deniq andiyenaq, edertasun deniq perfectuenaq, nobleza deniq zarrena, eta guizonen valore deniq famosuena: Zubeq, ezaumentu\* provechosuoquin arguittubaq, bacarriq eternidadia, zebeu vicitza deboto, mortificatu eta ejemplu ona ematten duzubenarequin deseyatzen duzubenaq, seguizazube, zuben ejercicio piadosua oriyetan, zuben mortificaciyo eta penitencian, eguiziozube zebeu lagun projimuey, dezaquezube on guciya, ceren urbillzen zaizube betico premiyua Ceruco ereynuban: *quoniam...*<sup>210</sup>

Bay *Ibit homo in domum aeternitatis suae* Yuanen da guizona, edocin clasecua, estaducua izan dadiela, yuanen da vere eternidadiaren Ycherat; Decreto divinua oneq iñorrere eztu veressten: Ceñ izanen den zubenat eternidadia au, niq eztaquitt, viño ezagutu dezaquezube veguiratzen vadiozube, zuben vicitza modubari; niq bacarriq daquidena da, badela eternidade bat ezin gueyago ona: badela verze eternidade bat ezin gueyago gastua, eta erremedyoriq vague, zubeq eta niq eta guciyeq egun guti eyen barrenian biar dugula otariq bation sartu: gure tristiaq vada, baldin ezpagara ongui vicitzen!<sup>220</sup>

Zubeq pecatari tristiaq, mundu(co) gustu atseguin eta asuntubetan enredatubaq, zuben viciya pasatzen ari zaratenaq, zuben esperuban dagon eternidadian pensatu bague, ezin utzico dizubet erran vague zuaztela eternidade guzico galzerat, zubeq vizi zaraten eraverat *Perditus in aeternum eris ait D(omin)us* (Jerem. c. 57 v. 26). Jangoicuaq dio au eta seguratzan; cergatiq aunitz gauzetan zarate enoilzen eta inquietudiarequin duzube cuidaduba paratzen, eta ez araco bacarriq viarra

*untasun deniq aundienaq, edertasun deniq perfectuenaq, nobleza deniq zaharrena; eta guizonen valore deniq famatiena: cieq, ezautza provechosquin arguitiaq, bacarriq* (eternitadia desiratzen ducienaq) *eternitatiari soiten ducienaq, cien vicitza devot eta mortificatu eta emaiten ducien exemplu unaiquin, segui zacie cien ejercicio piados orietan cien mortificacione eta penitencian, eguin zacie cien proximo laguner dezaquecie ongui gucia, ceren urbiltzen zaicie betico premia Ceruco Erresuman: Quoniam merces Dei manet in aeternum*<sup>210</sup>.

*Cieq, guiristino maitiaq, entzunacie Yaincoaren votza: Ibit homo in domum aeternitatis suae. Yuanen da guizona, edocein clasecua, estatucua izan daila, yuanen da vere eternitadiaren echera: decreto divino uneq nehor eztu verechten. Cein izanen den cientzat ete(r)nitete au, niq eztaquit; bana ezaut dezaquecie soiten baducie cien vicitza manerari: niq bacarriq daquitana da, badela eternitate bat ecin gueyago una; badela bertze eternitate bat ecin gueyago gaisstua; eta erremedioiq gabe, cieq eta niq eta guciyeq egun gutien barnian behar dugula otaiq bation sartu. ¡Malurosaq veraz, baldin ezpaguira untsa vicitzen!*<sup>220</sup>

*Eta cieq becatari tristiaq, munduco gustu, placer eta aferetan nahasiaq, cien vicitza pasatzen ari ciztenaq, cien beha doon eternitate gucian pensatu gabe, etziuztet uzten ahal erran gabe galtzera zuaztela eternitate gucico cien vicitzaren arabera. Perditus in aeternum eris, ait Dominus (Jerem. 51-26). Yaincoaq dio au eta segurtatzen: ocupatzen ciztelacotz anitz gauzetan, eta ez bacarriq beharra den artan; cien arrangura guciaq direlacotz munduco caudalaq eta untasunaq emendatzia*

A 206. *ezaumentu* Bere ohiko joeran *ezaumendu* izan beharko zuen, ondasun, nondiq, emendiq bezala.

den artan: cergatiq zuben cuidado guciyeq<sup>230</sup> diré munduco caudalaq, eta ondasunaq verretzia edocin precioz eta moduz dela, acompañaizia munduba becatuzco diversiyuequin muguitzia lagun projimuaq becurat, gastatzia gaizqui ezin soportatu diren lujuban eta vanidadian zuben ondasunaq, eta paratzia zuben arima gassua galzeco arriscuban: adizazube vidian vera seguittu zutenaq: *ad extrema montium descendentium descendi, terre vectes concluderunt me in aeternum* (Jonas. c. 11 v. 7) ahíy! gure tristiaq diote, erori vaicara Calabozo añ illuna otan non gure becatuben grillubaq baicaduzquitte Preso eternidade guzico: onen vistan Christau Mattiaq, cer duzube determinatzen:<sup>240</sup> ¿nai duzube orañiq zubeq betico galgarriyerat zuzen zuzena guiatzen zattuizen vicitza gasstua orretan seguittu? Hay ceñ zenzu vaguiaq zaraten baldin onela pensatzen vaduzube! Muda pecatari gassoq zuben vicitza moduba ori, utzi zuben oittura gasstuaq, abandona osoqui munduba eta munduco gauzaq, baldin ezpaduzube eternidade ezin gueyago gassto artan sartu nay, ez fiyatu gueroco demboran, ceren au viño lenago allegatuco den ezin escapa dattequien eternidade araco gorderiq dagon eternidadia ura; viño au da<sup>250</sup>.

## 2

Eternidadia da gauza gordia, au da eztaquigu noiz arrapatuco gattuben, eztere cer estatutan: Yñorquere eztaquigu edo gaur izanen den, edo viyar, edo gaurco arratsian, edo orduba onetan vertan, icusico garen artan, edo luzatuco duben zarreriñecuan: oranche vertan; instantia onetan vertan ari diré aunitz arima eternidadian sarzen, onetan pensatu vague, onetaraco prestatu vague: oy guertatu zayo Baltasar Erregue

B 238. *baigauzque*.

*edocein precio eta moduz dela, (laguntzia mundiari)<sup>230</sup> acompañaizia mundia becatuzco liverticioneetan, provocatzia proximo lagunaq becurat, gaizqui gastatzia ecin soporta dittezquen vanitatetan cien untasunaq, eta ezartzia cien arima galtzeco lanyerrian: adi zacie vide au vera seguittu zutener, baitiote: Ad extrema montium descendentium descendi, terrae vectes concluderunt me in aeternum (Jon. 11-7).;Ay gure tristiaq, diote, erori baiguira Ynfernucopresundegui ain ilun otan, nun gure becatien cadeneq baigauzq\* preso eternitate gucieco! Unen vistan, guiristino maitiaq, ¿cer determinatzen ducie?<sup>240</sup> ¿Nahi ducie oraino cieq betico galgarrira chuchen chuchena guidatzen ciuzten vicitza gaissto ortan seguittu? ¿Ay cein cenzugabiaz cizten baldin guisa untan pensatzen baducie! (Erreforma zacie, becatari malurosoaq, cien vicitza manera ori, utzi cien costuma gaisstuaq, abandona osoqui mundia eta munduco placer eta atseguinaq). Abandona zacie, veraz, becatuco vidia, baldin ezpaducie nahi eternitate ecin gueyago gaissto artan sartu: etziztela fida gueroco demboran, ceren au bano lehena-go (yinen) elduco da gordeiq doon eternitate ura. Bana au da esplicatu behar dutan eternitatiaren vigarren circuns-tancia<sup>250</sup>.*

## 2

*Eternitatie da gauza gordia, au da, eztaquigu noiz arrapatuco gutien, ez etare cer estatutan. Nehorquere eztaquigu edo egun izanen den edo viar; edo gaurco gabian, edo oren untan verian icusico guiren artan, edo luzatuco dien zahartasunerano: oray, (instante) mement untan verian ari dira anitz arima eternitatiean sartzen, untan pensatu gabe, untaraco prestatu gabe. Oor guertatu cee Baltasar Erregue aundiari guertatu citzacona, ban-*

andiyari, guertatu zetzayona, aseguin andiyarequin yateco yanari gustosua, may eder batian vere emacume torpe eta galdubequin afaritten ari zela: etzuben tristiaq pensatzen arratsa artan bertan viar zubela eternidaderat pasatu<sup>260</sup>: viño escu espantoso bateq eman cion aditzerat, escribitturiq paretian vere condenaciyuaren decreto erremediyoriq vaguecua: oy zayo guertatu Amon Principiari Daviden semiari, guertatu cetzayona, vere senidiequín, alegrequi yaten eta edaten ari zirela; conversaciyuaq, irriyaq eta brindisicq zaucaten entretenittuba aren gogua, etzu miserabliaq\* icusten Abalonen mutillaq even nagusi-yaren ordenaz aren burubaren gañian paratuba zaucaten ezpata villussiya golpea aren gañera descargatzeco, eta ustevague da sarzen eternidadian, convitiartatiq yequi viño len: (Lib. 2 Reg. c. 13 v. 28 y 29). Oy guertatu zayon Alejandro Andiyari vere su eta Erreynuben conquista guciyen onduan, guertatu zetzayona<sup>270</sup>; araco guizona ura, ceñen presencian issilyu vaitzen lurra, dion vezala Escritura Sagradaq; araco guizon ura chissmista vici baten anzerat vere armaq mundubaren caburañecuan, eramén vaizittuben ura: araco guizona ura bada añberze grandezetaz inguratuba ura, eta vere edadearen lore lorean, du arrap(a)tzen eriotziaq, eta sepultatzen, eternidadiaren pozo ondo-riq vaguián, emen secula guciyan ondatuba egotteco (Lib. 1. Mach. c. 1 v. 6). Azquenian, oy guertatu zayo zubey eta niri instantia onen vertan guerta daquiguna\*, bada guciyenzat dago eternidadia gorderiq eta erorico gara artan, guq gutiyeniq Pensatzen dugunian<sup>280</sup>:

*quete aundi bat eman eta atseguin aundiaiquin mahi eder batian vere emazte dorpe eta galdiequin afaiten ari celaiq: etzien tristiaq pensatzen gau artan verian behar ciela eternitaterat pasatu;*<sup>260</sup> *bana escu icigarri bateq advertitu zacon, issquirituz paretian vere condenacioniaren decreto erremedioiq gabecua. Guertatu cee Alejandro aundiari vere guerla eta Erresumen conquista gucién onduan guertatu citzacona: guizon ura, ceinaren presencian ichildu baitzen lurra, Escritura Saindiaq dion bezala; guizon ura pensatu bezain fite vere armadaq munduco nacione eta bazter guciétara eremaiten citièna*<sup>270</sup>; *guizon ura bada aunditasun eta puchantziaz inguratia eta vere gaztetasuneco sasoiniq oberenian, arrapatzen du eriotziaq eta botatzen eternitateco leice ondoiq gabecuan, ementiq secula ez ateratzeco. Azquenian guertatu cee, cier eta eni mement untan verian guertatzen ahal zauguna, ceren eternitatia gordeiq doo guciènzat, eta erorico guira artan guq gutiyeniq pensatzen dugunian*<sup>280</sup>.

A 265. *etzuen miserabliaq.*

A 278. *gerta dakigukeena.*

Veño hay! gauzariq terribliena dena, da ez eternidadiari ocultuba izattia, baiziq cer estadutan arrapatu viar gattuben ez yaquittia! Circunstancia beldurragarriya eternidadia ezin gueyago terriblia eguitten dubena! Bay Jaunaq, guq eztaquigu gure eriotzia izanen den preciosua Jaunaren aincinian, justuben eriotzia vezala; Jangoicuaren graciya veressi batez izanen ote garen guizonen artetiq arrancatubaq, equin conversaciyuac manchatu eta corrompittu eztezan gure inocenciyaren garvitasuna<sup>290</sup>; edo acabatuco ote dugun gure viciya pecatariyen eriotze, ezin gueyago gaistuarequin: eztaquigu arratsa onetan vertan erranen vazaigure Evangeliyoco averetsari erran zetzayona. *Stulte hac nocte animam tuam repetent á te* (Luc. 12 v. 20). Arratsa onetan vertan arrancatuco diteq ere arima, eta botatuco vetico braserueteterat.

